

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

5701

EBAZPENA, 2022ko abenduaren 1ekoa, Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendariarena, zeinaren bidez ematen baitira animaliak elikatzen dituzten operadoreen sektorerako ezohiko estatu-laguntzak, Errusiak Ukrainari eraso ondoren ekonomia babesteko estatu-mailako laguntza-neurriei dagokien denbora-esparruaren barruan, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2022ko urriaren 13ko Aginduaren bidez deituak, horretarako emandako epean alegazioak aurkeztu dituzten erakunde onuradunei erantzun ondoren.

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2022ko urriaren 13ko Aginduaren bidez, animaliak elikatzeko operadoreen sektorerako ezohiko estatu-laguntzen deialdia egin zen, Errusiak Ukrainaren aurka egindako erasoaren ondoren ekonomia babesteko estatu-laguntzako neurriei buruzko Aldi Baterako Esparru Nazionalaren barruan.

Agindu horren 6. oinarriaren arabera, laguntzak kudeatu eta ebazteko organo eskuduna Eusko Jaurlaritzako Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritza da.

Behin 10 egun balioduneko epea amaituta laguntza ukatzeko edo EAeko Administrazioaren egoitza elektronikoan argitaratutako erakunde onuradunen behin-behineko zerrendan agertzen ziren datuak kontsultatzeari aurka egiteko, edo, hala badagokio, zerrenda horretan sartzeko eskatzeko, egiaztatu da ebazpen honen eranskinean agertzen diren erakunde onuradunek, alegazioei erantzun ondoren, laguntza jasotzeko ezarritako baldintzak betetzen dituztela. Beraz, Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzako zerbitzu teknikoek erakunde onuradun bakoitzari eman beharreko zenbatekoak kalkulatu dituzte, 2022ko urriaren 13ko Aginduaren 4. oinarrian ezarritakoaren arabera; non, zenbatekoa, 2021ean aitortutako artoaren erosketa-bolumena (tonak) bider 30 eurotan finkatutako tona bakoitzeko zenbateko unitarioa den.

2022ko urriaren 13ko Aginduaren 4. oinarriaren 2. puntuaren arabera, erakunde onuradun bakoitzak gehienez 400.000 euro jaso ahal izango ditu.

Horregatik guztiagatik, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.— Ebazpen honen eranskinean zerrendatutako erakunde onuradunei Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2022ko urriaren 13ko Aginduan araututako laguntzak ematea. Agindu horren bidez, Errusiak Ukrainaren aurka egindako erasoaren ondoren, ekonomia babesteko Estatuaren laguntza-neurriei buruzko Aldi Baterako Esparruaren barruan, animalien elikadurako operadoreen sektorerako ezohiko estatu-laguntzen deialdia egin da. Agindu horren 6. oinarriko 2.b) puntuan ezarritako epean egindako alegazioei erantzun ondoren, eranskinean agertzen diren erakunde onuradunak horiek jasotzeko baldintzak betetzen dituztenak dira.

Bigarrena.— Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beraren aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakioke Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako sailburordeari, hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko abenduaren 1a.

Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendaria,
RAÚL PÉREZ IRACHETA.

ERANSKINA

EZOHIKO ESTATU-LAGUNTZAK ANIMALIEN ELIKADURAKO OPERADOREEN SEKTOREARENTZAT, ERRUSIAK UKRAINAREN AURKA EGINDAKO ERASOAREN ONDOREN EKONOMIA BABESTEKO ESTATU-LAGUNTZAKO NEURRIEI BURUZKO ALDI BATERAKO ESPARRUAREN BARRUAN 2022

Espediente-kodea	IFZ	Sozietate-izena	Tona	Zenbatekoa
00001-1222101	B20090296	Divia Penttsuak S.L.	18.352,74	400.000,00
00002-1222101	F48039507	Miba S. Coop.	15.271,00	400.000,00
00003-1222101	B48030548	Goimar S.L.	7.246,23	217.387,02
00004-1222101	F48056303	Guvac S. Coop.	6.529,25	195.877,50
00005-1222101	F20026985	Ibaieder Nekazal Koop	4.227,76	126.832,80
00006-1222101	B20094058	Almacenes Alegi S.L	3.869,00	116.070,00
00007-1222101	F20022083	Ineko S. Coop	3.501,00	105.030,00
00008-1222101	B48086490	Hergasa S.L.	5.186,00	155.580,00
00009-1222101	A01031582	Urrutia Goikoetxea S.A.	2.158,00	64.740,00
00010-1222101	B01342401	Ingaso Farm S.L.	1.303,60	39.107,88
00011-1222101	F20023917	Goiherriko Nekazal Koop.	378,00	11.340,00
00012-1222101	F48024681	Coop Agrícola Ganadera de Elorrio	110,00	3.300,00
00013-1222101	J01180140	Piensos Ramón Pérez S.C.	15,00	450,00
00014-1222101	***6027**	Javier Regulez Laiseka	62,00	1.860,00